



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Abeltzaintza Zerbitzua / Servicio de Ganadería
ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA
c/ Diputación 13- 01001- VITORIA-GASTEIZ
Tel: 945 18 18 18 .Fax: 945 18 18 34
[www:servicioganaderia.araba.eus](http://www.servicioganaderia.araba.eus)



ABELTZAINZA ZERBITZUA

JARDUKETA MEMORIA - 2018

2019/03/13 GASTEIZ



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

2018ko ekitaldiko jarduketa memoria

Abeltzaintza Zerbitzua AFako Nekazaritza Sailari atxikita dago. Haren egitura eta eginkizunak 14/2016 Foru Dekretuaren bidez ezartzen dira. Nagusiki hauek dira eginkizun horiek: animalien osasuna eta ekoizpena hobetu eta abeltzaintzako ekoizpen primarioaren kalitatea eta higiena kontrolatu.

Abere ekoizpenari lotutako eginkizunetako batzuk abeltzainen elkarteek eta haien federazioak (ABERE kooperatiba) gauzatzen dituzte, AFaren kudeaketa agindu bitartez, lankidetzaz hitzarmenaren arabera.

Animalien osasun arloan Abeltzaintza Zerbitzuak egindako jarduerak Animalien Gaitzak Erauzteko edo Kontrolatzeko Programa Nazionalarekin (PNEEAS) daude lotuta, zainketa aktiboko jardunen (abeltzaintzako saneamendu kanpainak) eta zainketa pasiboko beste jardun batzuen bidez, bai eta animalien mugimenduaren kontrolaren bidez ere. Haiek gauzatzeko, AFak ABERE S. Koop. enpresaren laguntza du, albaitaritza zerbitzuak emateko 2016an sinatutako 4 urteko kontratuaren bidez.

Bestalde, animalia ekoizpenarekin zerikusia daukaten eginkizun gehienak Arabako Lurralde Historikoan dauden 17 abeltzain elkarteek egiten dituzte, zeinek abeltzaintza hobetzeko beren programak garatzeko 54/2017 Dekretuan jasoriko AFako Nekazaritza Saileko laguntzak eskura baitituzkete.

Abeltzaintza Zerbitzuaren eginkizuna da, halaber, Arabako abeltzaintza ustategietan **Ekoizpenaren Kalitate eta Higiena Kontrola** egitea. Elikagai Katea Kontrolatzeko Plan Nazionalarekin (PNCOCA) kokatzen dira jarduketa horiek, eta haien azken xedea da bermatzea abeltzaintza produktuen segurtasuna eta kalitatea. Kontrol jarduketak Abeltzaintza Zerbitzuko langileek egiten dituzte.

1. ABERE ERROLDA KUDEATZEA

Abere errolda 2018ko urtarrilaren 1eko dataz.

BEHIAK

ABEREA, GUZTIRA	42.079
Esnetarako egokiak	10.105
Haragitarako egokiak	31.974
USTIATEGIAK, GUZTIRA	705
< 10 BURU	220
>10 BURU	485
Esnetarako egokiak	47
Haragitarako egokiak	655



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

ARDIAK

ABEREAk, GUZTIRA	48.392
Esnetarako egokiak	28.907
Haragitarako egokiak	19.485
USTIATEGIAK, GUZTIRA	649
< 30 BURU	427
>30 BURU	222
Esnetarako egokiak	81
Haragitarako egokiak	567

AHUNTZAK

ABEREAk, GUZTIRA	3.809
Esnetarako egokiak	682
Haragitarako egokiak	3.127
USTIATEGIAK, GUZTIRA	342
< 10 BURU	236
>10 BURU	106
Esnetarako egokiak	3
Haragitarako egokiak	339



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

4

TXERRIAK

USTIATEGIAK, GUZTIRA	61	
TXERRIKUMEEN EKOIZPENA	15	241 ugalketarako
GIZENDEGIAK	41	11.670 gizentze plaza
UGALTZEKO USTIATEGIAK	2	675 ugaltzaile

ZALDIAK

ABEREAK, GUZTIRA	6.771
USTIATEGIAK, GUZTIRA	1.008
< 5 BURU	765
5 ETA 10 BURU ARTEAN	148
>10 BURU	95

ERLEAK

USTIATEGIAK, GUZTIRA	USTIATEGIAK	ERLAUNTZAK
< 15 ERLAUNTZ (autokontsumoa)	215	1.373
GEHIENEZ ERE 150 ERLAUNTZ (ez profesionala)	174	6.100
>150 ERLAUNTZ (profesionala)	5	1.181
GUZTIRA	394	8.654



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

5

HEGAZTIAK

USTIATEGIAK, GUZTIRA	34	ANIMALIA KOP.
ARRAUTZA EKOIZPENA KAIOLETAN	2	233.665
LANDAKO ARRAUTZEN EKOIZPENA	10	37.000
HARAGI EKOIZPENA	18	27.244
UGALKETARAKOEN HAZKUNTZAKOAK	1	60.000

UNTXIAK

USTIATEGIAK, GUZTIRA	1	UGALKETARAKOEN KOP.
ERBIKUMEEN HARAGITARAKO EKOIZPENA	1	900

UR GEZAKO AKUIKULTURA

ARRAIN HAZTEGIAK GUZTIRA	1	PUTZU KOPURUA
GIZAKIEK KONTSUMITZEKO GIZENKETA	1	12

Hauexek dira Abeltzaintzako Erregistroarekin loturiko beste eginkizun batzuk:

- ✓ Kudeatzea Abeltzaintzako Ustategien Erregistroa (**REGA**) eta Abere Erroldako Datu Baseak.
- ✓ **SITRAN** (Animalien Trazabilitaterako Sistema Integrala), zeina oinarritzko bi elementuk osatzen baitute:
 - ✓ **RIIA**: Banaka Identifikatutako Animalien Erregistroa. Behi, ardi, ahuntz eta zaldi azienden identifikazio datuak jasotzen ditu
 - ✓ **REMO**: Abereen Mugimenduen Erregistroa.



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

6

2. ABEREEN OSASUN PROGRAMAK

Animalien gaitzen aurkako borroka Abeltzaintza Zerbitzuaren funtsezko eginkizunetako bat da. Gaixotasunen Kontrol Ofizialeko Planak egun Elikagai katearen Kontrol Planaren baitakoak dira.

Osasun plan horietako gehienak ABERE ZERBITZU TEKNIKOAK KOOPERATIBA enpresari esleitutako kontratu publiko baten bitartez garatu eta gauzatu dira, eta 2018an **841.427,75€** ordaindu zaizkio zerbitzu horiengatik.

Animalien osasun eremuko jarduketak bi kategoriatan banatzen dira:



➤ GAIXOTASUNAK ERAUZTEKO PROGRAMA NAZIONALAK (PNEEAK)

➤ KONTROL ETA ZAIN'TZA PROGRAMAK





ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

7

➤ BESTE PROGRAMA EDO OSASUN PLAN BATZUK

Programa bakoitzeko emaitzarik nabarmenenak hauexek dira:

BEHIEN TUBERKULOSIA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	637	0
ANIMALIAK	32.446	0

BEHIEN BRUZELOSIA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	604	0
ANIMALIAK	22.831	0

BEHIEN LEUKOSI ENZOOTIKOA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	84	0
ANIMALIAK	2.744	0

BEHIEN PERIPNEUMONIA KUTSAGARRIA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	84	0
ANIMALIAK	2.744	0



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

8

BEHIEN BRUZELOSIA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	294	0
ANIMALIAK	10.482	0

AHUNTZEN BRUZELOSIA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	223	0
ANIMALIAK	2.754	0

AHUNTZEN TUBERKULOSIA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	238	0
ANIMALIAK	3.638	0

AUJEZSKY-REN GAITZA (TXERRIAK)

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	22	0
ANIMALIAK	1.011	0

TXERRI IZURRI KLASIKOA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	8	0
ANIMALIAK	491	0



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

9

TXERRI IZURRI AFRIKARRA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	11	0
ANIMALIAK	524	0

TXERRIEN BEHAZUNEN GAIXOTASUNA

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
UKUILUAK	1	0
ANIMALIAK	23	0

SALMONELLA HEGAZTIEN USTIATEGIETAN

	AZTERTUTAKO TALDEAK	POSITIBOAK
ERRULEEN USTIATEGIAK	5	0
GIZENTZEKO OILASKOEN USTIATEGIAK	0	0

TRANSMITITU DAITEZKEEN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEAK

Abere ustiategietan transmititu daitezkeen entzefalopatia espongiformeak kontrolatzeko programa 72 hilabetetik gorako behi hilak eta 18 hilabetetik gorako ardi eta ahuntzak aztertuta egiten da.

Laginak Gorpuak Jasotzeko Zerbitzuak, EURIA SL enpresaren bitartez, ustiategietan jasotako gorpuetatik atera dira, eta NEIKERek aztertu ditu (Derio, Bizkaia)

	AZTERTUTAKOAK	POSITIBOAK
ANIMALIAK	482 BEHI, 9 AHUNTZ 48 ARDI	0

➤ BASA FAUNA ZAINTEKO PLANA



ABELTZAINZA ZERBITZUA

1. Abeltzaintza Zerbitzuak, Arabako Ehiza Barruti Elkarteekin, haien kabinete teknikoekin eta ehiza barrutiek elkarlanean, honako lagin hauek aztertu ditu:

Espezia	Lagin kop.	Lagin mota	Aztertutako gaixotasunak	Emaitza
BASURDEA	115	Serumak Erraiak	TIA, TIK, EA (seruma) TB (erraiak) Bruzelosia. (erraiak)	Negatiboa
ORKATZA	2	Serumak Erraiak	MU (seruma) TB (erraia) Bruz. (erraia)	Negatiboa
OREINA	23	Serumak Erraiak	MU (seruma) TB (erraia) Bruz. (erraia)	Negatiboa
HARAGIJALEAK	2	Gorpua	Mukieria (seruma) TB (erraia) Hazteria (larrua, seruma) Hidatidosia (gorotzak, seruma)	Negatiboa
LAGOMORFOAK	0	Erraiak	Turalemia	Negatiboa
HEGAZTIAK	4	Gorpuak Kloaka isipuak	*Hegazti gripea (kloaka isipuak) Niloko sukarra (kloaka isipuak)	Negatiboa

*Hegazti gripearen zaintza pasiboa ingurune naturalean jasotako gorpuetan eta Martiodako Basa Fauna Leheneratzeko Zentroak bidalitako laginak (Ingurumen Saila)



ABELTZAINZA ZERBITZUA

11

2. Horrez gain, hondakin zinegetikoak jasotzeko edukiontzi sarea (SANDACHI) ezarri da, Arabako Lurralde Historikoko ehiztariek erabil ditzaten. Egun, 29 edukiontzi daude lurralde historiko osoan. 2017-2018 denboraldi zinegetikoan, zerbitzuaren jardura honako hau izan zen:

Espeziea	Basurdea	Oreina	Orkatza	Azeria	Identifikatu gabea
Animaliak	1.337	121	111	2	0
Kg, guztira	24.690				
ABISUAK, GUZTIRA	453				

➤ BESTE OSASUN PLAN BATZUK

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko **828/2018 Erabakia**, zeinaren bidez onesten baita abere arrazak hobetzeko, animalien osasunerako, animalia ekoizpenerako, ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko 2018rako abeltzaintza laguntzen ebazpena. Hura argitaratu zenetik, hainbat erakunde edo erkidegok osasun planak egin dituzte animalien beste gaixotasun batzuk kontrolatzeko. 2017. urtean hasi ziren planak garatzen eta hurrengo urteetan ere horretan jarraituko dute.

Plan horiek egiteko iaz aurkeztutako diru kopurua **89.947,24 €** izan da, eta haietatik **86.847,24** euro dira diruz laguntzeko modukoak.

2018. urtean plan horiei emaniko dirulaguntza **60.090,98 €** izan da.



ABELTZAINZA ZERBITZUA

Hona hemen aurkeztutako planen laburpena:

Entitatea (mendilerroa edo herri basoa)	Abeltzain kop.	Animalia kop.	Espezia	Kontrolen xede diren gaixotasunak
GORBEIA-AMURRIO	6	117	Behiak	Trichomoniasi- Kanpilobakteriosia IBR, BVD eta Paratuberkulosia
GORBEIA-LAUDIO	9	404	Behiak	Trichomoniasi- Kanpilobakteriosia, IBR, BVD eta Paratuberkulosia
GORBEIA-ZIGOITIA	6	597	Behiak	Trichomoniasi- Kanpilobakteriosia, IBR, BVD eta Paratuberkulosia
GORBEIA-ZUIA	10	566	Behiak	Trichomoniasi- Kanpilobakteriosia, IBR, BVD eta Paratuberkulosia
GIBIJO	25	2.024	Behiak	Trichomoniasi- Kanpilobakteriosia, IBR, BVD eta Paratuberkulosia
BADAIA	21	1.613	Behiak	Trichomoniasi- Kanpilobakteriosia, IBR, BVD eta Paratuberkulosia
BAJERRO-LUNA	7	888	Behiak	Trichomoniasi- Kanpilobakteriosia, IBR, BVD eta Paratuberkulosia
APIAL	315	7.638 erlauntz	Erleak	Barroasia, Lokeak, Akosferosia, Nosema, Akarapiak, Aethinosia.
APIGOR	25	1.184	Erleak	Barroasia, Lokeak, Akosferosia, Nosema, Akarapiak, Aethinosia.
ASCUAL	1	900	Untxiak	Hainbat gaixotasun



ABELTZAINZA ZERBITZUA

3. ESKALMENDIKO LABORATEGIA

Eskalmendiko laborategia organikoki Abeltzaintza Zerbitzuan dago sartuta. Atal bi dauzka: Animalia Osasunaren Laborategia eta Nekazaritza Laborategia.

Laborategi hori ENAC batek egiaztatu du (UNE-EN ISO/IEC 17025:2005) eta egun UNE-EN ISO/IEC 17025:2017 bertsioranzko trantsizio prozesuan dago.

ANIMALIA OSASUNAREN ARLOAN PROZESATUTAKO LAGINAK

PROBA	ANALISI KOP.
TUBERKULOSIA	44
BRUZELOSIA	35.103
LEUKOSIA	3.085
PERIPNEUMONIA	3.085
AUJESZKY-REN GAITZA	1.167
TIA	672
TIK	548
MIHI URDINA	41
TXERRIEN BEHAZUNeko GAIXOTASUNA	35
TRITRICHOMONA FOETUS	254
BRUCELLA OVIS	1.676



ABELTZAINZA ZERBITZUA

14

CHLAMYDOPHILA ABORTUS	192
PARATUBERKULOSIA	5.702
Q SUKARRA (<i>Coxiella Burnetti</i>)	419
BEHIEN INFEKZIOZKO ERRINOTRAKEITISA	4.399
BEHIEN BEHERAKO BIRALA	3.634
AGALAXIA KUTSAKORRA	2
NEOSPORA CANNINUM	1.386
BORDER DISEASE	687
CAMPYLOBACTER FETUS VENEREALIS	3
LAGINAK, GUZTIRA	62.134

ESPEZIEA	LAGIN KOP.
ZERBIDOAK	90
BASURDEAK	331
AHUNTZAK	3.050
TXERRIAK	2.273
ARDIAK	14.768
BEHIAK	41.622
GUZTIRA	62.134



ABELTZAINZA ZERBITZUA

15

TEKNIKA	LAGIN KOP.
BENGALA ARROSA	34.732
INMUNOENZIMOSAIKUNTZA	23.140
OSAGARRIA FINKATZEA	3.241
PCR DENBORA ERREALEAN	1.005
INMUNODIFUDIO BIKOITZA AGAR GELEAN	21

SERUM LAGIN DESBERDINEN KOPURUA	BANAKAKOA
ESNEA	7.863 (93 tanga)
GOROZKIAK	302
PREPUZIO GARBIKETA	254
ISIPUAK	16

ANIMALIA ELIKADURAREN LABORATEGIAN PROZESATUTAKO LAGINAK

PROBA	ANALISI KOP.
Materia lehorra	596
Errautsak	199
Kaltzioa	149
Fosforoa	150



ABELTZAINZA ZERBITZUA

Potasioa	143
Magnesioa	28
Koipea (aterakin etereoa) hidrolisirik gabe	6
Gantza (aterakin etereoa) alde zurretiko hidrolisiarekin	17
Proteina gordina	207
Proteina digerigarria	150
Zuntz gordina	111
Zuntz azido detergentea	122
Lignina azido detergentea	4
Zuntz azido detergente aldatua	147
Zuntz neutro detergentea	254
Digerigarritasun entzimatikoa	93
pH	4
Nitrogeno amoniakala	4
NGA (nitrogenorik gabeko aterakinak)	6
Energia metabolizagarria	128
AFADi loturiko proteina	23
Laginaren pisua (gordina bider garbia)	1
Lehorketa 70°C-ra	107
Hezetasuna	421
Saponinen determinazioa	7
Pisu espezifiko	1
Kobrea	4
Zinka	4
GUZTIRA	3.086



ABELTZAINZA ZERBITZUA

INFRAGORRI HURBILAREKIN EGINDAKO PROBAK	ANALISI KOP.
MATERIA LEHORRA	178
PROTEINA GORDINA	98
ZUNTZ GORDINA	83
ZUNTZ AZIDO DETERGENTEA	97
DIGERI DAITEKEEN PROTEINA	81
ZUNTZ NEUTRO DETERGENTEA	175
ENERGIA METABOLIZAGARRIA	61

MIKROGRAFIA ARLOAN PROZESATUTAKO LAGINAK

PROBA	ANALISI KOP.
HARAGI/HEZUR IRINEN PRESENTZIA	24
ARRAIN IRINAREN PRESENTZIA	24

ERREMOLATXA ARLOAN PROZESATUTAKO LAGINAK

PROBA	ANALISI KOP.
SUSTRAI KOPURUA	79
LAGINAREN PISUA	79
SAKAROSA ABERASTASUNA	79



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

ENAC AKREDITAZIOAREN IRISMENA 813/LE 1699 ZENBAKIKO ERANSKIN TEKNIKOA

Behi, ardi eta ahuntz aziendaren seruma	Brucellaren aurkako antigorputzak detektatzea osagarriaren finkapenaren bidez
Behi, ardi eta ahuntz aziendaren seruma	Brucellaren aurkako antigorputzak plakan detektatzea Bengala Arrosaren bidez
Behi aziendaren seruma eta esnea	Brucellaren antigorputzak plakan detektatzea inmunosaiakuntzaren bidez (ELISA)
Behi aziendaren gorotzak	Mycobacterium avium-a (azpiespezia: Paratuberculosis) denbora errealean hautematea PCR-ren bidez
Pentsua eta bere lehengaiak	Animalia jatorriko osagaiak detektatzea azterketa mikroskopikoaren bidez

- ❖ 53/2013 Errege Dekretua aplikatzearen ebazpenak. "Saiakuntzak egiteko eta zientziako beste helburu batzuetarako —irakaskuntza barne— erabilitako animaliak babesteko aplikatu beharreko oinarriko arauak".
 - ✓ Euskal Herriko Unibertsitateko 6 ikerketa proiektu balioetsi dira eta haien aldeko ebazpenak eman.
 - ✓ Neiker-en ikerketa proiektu 1 balioetsi da eta haren aldeko ebazpena eman da.
 - ✓ Euskal Herriko Unibertsitateko Farmazia Fakultatean dagoen ukuilua (REGA erregistro zenbakia: ES010590019008) ikuskatu da, bat etorri hazle, hornitzaile eta erabiltzeei, baita haien establezimenduei ere, kontrol eta ikuskapen erregularrak egiteko Arabako Foru Aldundiak daukan eskumenarekin, jakitearren ea betetzen den 53/2013 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen baitira saiakuntzak egiteko eta beste zientzia helburu batzuetarako —irakaskuntza barne— erabilitako animaliak babesteko aplikatu beharreko oinarriko arauak.
- ❖ Ziurtagiria, aitortzen duena saiakuntzarako eta beste zientzia helburu batzuetarako —irakaskuntza barne— erabili, hazi edo hornitutako animaliak erabiltzen dituzten langileek izan behar duten gaitasuna.
 - ✓ Bi eskaera jaso dira prestakuntza egiaztatzeko, animalien eutanasia betekizunak egin eta prozedurak egiteko karraskarietan.



4. ANIMALIA EKOIZPENA

Animalia ekoizpenaren arloko **xede nagusia** da Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintza ustategien jasangarritasuna sustatzea, haien ekoizpen eraginkortasuna hobetuz.

Xede hori lortzeko, hauexek dira Abeltzaintza Zerbitzuaren **estrategia** nagusiak:

- ✓ Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien **nekazaritza sailekiko koordinazioa**, EAeko ustategietan abeltzaintza hobetzeko plan eraginkor eta homogeenak inplementatzeko.

Ildo horretatik jarraituz, hertsiki dihardugu lankidetzan **EJ, NEIKER, HAZI** eta **ELIKA**ren partaidetza duten erakunde publikoekin; haiek ikerketako, nekazaritza prestakuntzako eta landa garapenerako lanak egiten dituzte, bai eta abeltzaintza produktuen kalitatea eta elikagaien segurtasuna hobetzekoak ere.

Koordinazio horretarako, Arabako Abeltzaintza Zerbitzuak hainbat foro erkidetan parte hartzen du, hala nola abere arrazen batzordea, esnea kontrolatzeko euskal zentroa edo elikagai segurtasuna kudeatzeko batzordeak.

- ✓ **Arabako abeltzaintza elkarteekiko lankidetzak**, eta Arabako abeltzaintzaren garapena helburuen artean duten beste entitate batzuekikoa, batez ere **UAGA** nekazaritza sindikatuarekikoa eta abeltzaintzako zerbitzu teknikoetako **ABERE S. Koop.** sozietatearekikoa.

1982tik 2016ra etengabe sinatu dira **lankidetzak hitzarmenak** Arabako abeltzaintza elkarteekin, 4 urterik behin berritzen zirelarik, eta, haien bidez, AFAk ordaindu izan du abeltzaintza hobetzeko programen ondoriozko gastuen zati handi bat.

2017an, formula hori aldatu egin zen, eta, formula horren ordez, **54/2017 Foru Dekretua** argitaratu zen, abeltzaintza hobetzeko helburua duten **programa edo zerbitzuen kudeaketan laguntzeko lerroak** jasotzen dituen, hala nola:



ABELTZAINZA ZERBITZUA

20



54/2017 FORU DEKRETU horrek **5 laguntza lerro ezarri zituen:**

❖ **Abere arrazen hautapen eta hobekuntza genetikorako programak** kudeatzeko laguntzen lerroa:

Programa horiek arraza bakoitzaren liburu genealogikoaren kudeaketan oinarritzen dira, eta erregistro horretan inskribatzen dira arraza horretako abereak, jaiotzen direnean, aita eta ama zein izan dituen jasoz.

Horrez gain, errendimenduen kontrol bat ere garatzen dute, hain zuzen, programan parte hartzen duten ustategietako emeek lortu duten ekoizpena sistematikoko neurtuz. Informazio horrekin, abere ugaltzaile baliotsuenak hautatzen dira, hurrengo belaunaldiko aitak eta amak izan daitezzen.

2018an, Araban hobekuntza genetikoko programak gauzatu dituzten abeltzaintzako bost elkarteek guztira **320.583 euroko** dirulaguntza jaso dute:

ESPEZIEA	ARRAZA	ELKARTEA	Abeltzain kop.	Abere ugaltzaileen kopurua
Behiak	Frisiarra	ASGAFAL	45	6.883
	Piriniarra	ARPIEL	66	2.714
	Limousina	ALE	35	1.416
	Txarolesa	ARTXAEL	3	198
Ardiak	Latxa	AGORALA	39	13.896



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

21

- ❖ Galzorian diren **abeltzaintzako arraza autoktonoak kontserbatzeko programak** kudeatzeko laguntzen lerroa:

Programa horiek kontserbatu nahi den arraza bakoitzaren liburu genealogikoaren kudeaketan oinarritzen dira, eta bertan erregistratzen dira abere bakoitza jaiotzen denean ezagunak diren haren aurreko guztiak. Kasu honetan, ahaidetasun graduak kontrolatzen da, arriskuan den arrazako aleen artean dagoena. Hala, ahaidetasun txikiena duten aleen arteko estalaldiak planifikatu ahal dira, odolkidetasuna areagotu ez dadin, populazioaren bideragarritasun genetikoari eustearren.

2018ko ekitaldian, arriskuan dauden arrazen kontserbazio programak gauzatu dituzten abeltzaintzako Arabako sei elkarteek guztira **72.920** euroko dirulaguntza jaso dute:

ESPEZIEA	ARRAZA	ELKARTEA	Abeltzain kop.	Abere ugaltzaileen kopurua
Behiak	Terreña	ARATEL	23	1.299
Zaldiak	EHko mendiko zaldia	ASGAEQUINO	73	2.275
	Enkarterriko astoa	ARASEL	11	106
	Pottoka	POTTOKZALEAK	5	135
Ardiak	Sasiardia	ARASARDI	4	381
Ahuntzak	Azpigorri	ASAGRA	8	264

- ❖ **Animalia ekoizpenerako programak** kudeatzeko laguntza lerroa, ustiategien produktibitatea eta abeltzaintzako produktuen kalitatea areagotzeko. Hiru programa mota daude:
 - ✓ **Ugalketa kontrolatzeko** programak. Ugalketa kontrolatzeko programen helburua da eme ugaltzaileen ugalkortasuna areagotzea, ekoizpenik gabeko aldiak ahalik eta laburrenak izan daitezen. Ernaltze diagnostikoak, ekografiak, hormonazko tratamenduak eta abar hartzen dituzte...
 - ✓ **Esnearen kalitatearen** programak: Helburu dute esnearen kalitate kimikoa, bakteriologikoa eta organoleptikoa areagotzea. Esnea jezteko makinak berrikustea, esnea jezteko errutina hobetzea, errape min subklinikoak hautematea, zelula somatikoak kontrolatzea, germenak isolatzea eta identifikatzea, antibiogramak, autotxertoak...
 - ✓ Ustiategietako osasuna hobetzeko programak: gaixotasunen kontrolerako jarduketak egiten dira; horretarako, biosegurtasuneko eta profilaxiko neurriak ezartzen dira, txertoak jartzeko tratamenduak egiten dira, parasitoen kontrako tratamenduak...



ABELTZAINZA ZERBITZUA

2018an, guztira **64.799 euroko** dirulaguntza eman zaie abeltzaintzako 13 elkartek aurkeztutako ekoizpen hobekuntzako 16 programari:

ELKARTEA	Hobekuntza programa	Atxikitako abeltzain kop.	Dirulaguntzaren zenbatekoa
APIAL	Erlezaintza ekoizpena hobetzea	305	4.753 €
ASGAPOAL	Txerrien ekoizpena hobetzea	5	1.971 €
ASGOAL:	Haragitarako ardien ekoizpena hobetzea	14	1.695 €
ASGOAL:	Haragitarako ardien ugalketa kontrola	1	154 €
ASOGAL	Hegazti erruleen hazkuntza hobetzea	3	1.066 €
ASCUAL	Untxien ekoizpena hobetzea	1	2.016 €
AGORALA	Esnetarako ardien ugalketa kontrola	14	592 €
ARPIEL	Piriniarren ugalketa kontrola	26	3.401 €
ALE	Limousinen ugalketa kontrola	12	1.340 €
ARTXAEL	Txarolesen ugalketa kontrola	3	515 €
ASGAEQUINO	Zaldien ugalketa kontrola	8	618 €
ARATEL	Terreñoen ugalketa kontrola	3	824 €
ASAGRA	Ardien ugalketa kontrola	2	70 €



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

23

ASGAFAL	Frisoien ugalketa kontrola	39	37.110 €
ASGAFAL	Esnetarakoen ugalketa kontrola	34	4.241 €
AGORALA	Esnetarakoen ugalketa kontrola	16	4.426 €

- ❖ Elikagai segurtasunaren eta kudeaketa ekonomikoaren arloan abeltzaintzako ustiategientzako **aholku zerbitzuen** kudeaketarako laguntza lerroa. Gai hauei buruzko aholku teknikoa emateko zerbitzuak dira:
- ✓ Lehen ekoizpenaren higiena.
 - ✓ Animalien ongizatea.
 - ✓ Albaitaritzako botiken erabilera arrazoizkoa.
 - ✓ Ongarriak eta gai fitosanitarioak erabiltzea.
 - ✓ Hondakinen kudeaketa.
 - ✓ Klima aldaketa.
 - ✓ Uraren arrazoizko erabilera.
 - ✓ Ekoizpen integratua.
 - ✓ Ekoizpen ekologikoa.
 - ✓ Kudeaketa tekniko-ekonomikoa.

Zerbitzu horiek 2018an sustatzeko dirulaguntzetan, guztira **31.563 euro** ordaindu zaizkio ABEREri.

- ❖ **Abeltzaintzako hobekuntza zabalteko laguntza lerroa:** 2018an zehar, abeltzaintzako hainbat erakusketa eta lehiaketa egin dira Arabako herrietan, eta haietatik bat nabarmendu behar da; hain zuzen ere, **Santiagoko Azoka**, zeina 2018ko uztailaren 25ean egin baitzen. Arabako herritarren artean ezagutzera ematearren abeltzaintzako hobekuntza programen emaitzak, Gasteizen aurkezten dira abeltzaintzako arraza guztiak ordezkatzan dituzten abereak, hobekuntza edo kontserbazio programetan parte hartzen dutenak.

Jarduera horretarako emaniko dirulaguntza **8.040** euro dira.

Bukatzeko, animalia ekoizpenaren eremuan abeltzaintza ustiategietarako erabilitako **baliabide kontrolen** eginkizunen artean, bi motatako kontrolak egiten dira:

- ✓ Abeltzaintzako ustiategietan baliatzen den **material genetikoaren** kalitatea kontrolatzea.
- ✓ Animalien **elikadura** kontrolatzea, batez ere substantzia debekatuei erreparatuko zaie.



ABELTZAINZA ZERBITZUA

24

5. ELIKAKATEA KONTROLATZEKO PLANA

❖ USTIATEGIAK KONTROLATZEKO IDENTIFIKAZIOARI ETA ERREGISTROARI BURUZKO PROGRAMA

USTIATEGIAK	ARDIAK AHUNTZAK	BEHIAK
KONTROL UNIBERTSOA	821	760
IKUSKATUAK	31	38
LURSAILAREN GAINEKO KONTROLETAN GORABEHERAK IZAN DITUZTENAK	9	9
ANIMALIA OSASUNAREN LEGEA EZ BETETZEAGATIK ESPEDIENTEA EGIN ZAIENAK	0	0
I+R EREMUAN BALDINTZAPEKOTASUNAREN ARAUDIA BETE EZ DUTENAK	2	3

❖ ANIMALIA ONGIZATEA KONTROLATZEKO PROGRAMA

✓ ANIMALIEN GARRAIOAN

	BEHIAK	TXERRIAK	ZALDIAK	GUZTIRA
ANIMALIAK	240	1.000	20	1.260
GARRAIOBIDEA	7	1	1	9
AGIRI KONTROLA	7	1	1	9



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

25

Garraioan detektatutako arau hausteak	1
Ongizatearen araudia ez betetzeagatik espedienteak egin zaien garraiolarien kopurua	1

BAIMENAK:

- Garraiolarien baimenak: 145 (90 berri eta 55 berritu)
- Garraio bideen baimenak: 160 (38 berri eta 122 berritu)

✓ ABELTZAIN'TZA USTIATEGIETAN

	IKUSKATU BEHARREKOAK	IKUSKATUAK	GORABEHERAK
BEHIAK	555	26	5
ARDIAK	291	8	1
AHUNTZAK	52	3	2
TXERRIAK	22	1	0
HEGAZTIAK	18	1	0
ZALDIAK	131	5	1



❖ ABEREEN ELIKADURAREN KONTROL PROGRAMA

Foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailaren artean ezarritako Animalien Elikagaien Kontrol Planarekin bat etoriz, AFari dagokio autokontsumorako pentsuak egiten dituzten eta 183/2005 Arautegiaren II. eranskinaren eremu barruan dauden abeltzaintza ustiategiak kontrolatzea; hau da, pentsua egitean siloratuta ez dauden aurrenahasketa eta gehigarriak erabiltzen dituzten ustiategiak.

2018. urtean egin diren animalia elikadura kontrolek arlo hauetan eragin dute:

- ✓ Lehengaien kalitatea
- ✓ Erabilitako produktuen segurtasuna
- ✓ Ekoizpenaren eta instalazioen higijenea
- ✓ Lehengaien trazabilitatea eta erabilera egokia

Plan horren arabera, 2018ko ekitaldian, honako jarduera hauek egin dira:

1.- Ustiategietan eginiko ikuskapenak:

Abeltzaintza ustiategien lau ikuskapen egin dira; hain zuzen ere, behiak gizentzeko 4 ustiategitan.

Egindako lau ikuskapenetatik batean ere ez da aurkitu hutsik, eragozten duenik jarduera egiten jarraitzea.

2.- Abeltzaintza ustiategietan hartutako laginen gainean eginiko analisiak:

2018an, animalia elikaduran erabilitako lehengaien eta pentsuen analisi hauek egin dira:

- **PATak:** 4 lagin
- **MIKOTOXINAK:** 4 lagin
- **METAL ASTUNAK** (Cu eta Zn): 4 lagin
- **PESTIZIDAK:** 4 lagin

Memoria hau argitaratu arte jaso diren analisi guztiak indarreko araudiarekin bat etorri egin dira.



ABELTZAINZA ZERBITZUA

27

❖ LEHEN MAILAKO EKOIZPENAREN HIGIENA KONTROLATZEKO PLANA

Plan honen helburua da elikakaterako produktuak ekoizten dituzten abeltzaintza ustategietako ekoizpenaren higie baldintzak egiaztatzea.

ESPEZIEA	IKUSKATU BEHARREKO USTATEGIAK	IKUSKATUAK	GORABEHERAK
BEHIAK	550	5	1
ARDIAK	223	3	2
AHUNTZAK	31	1	1
TXERRIAK	17	1	1
HEGAZTIAK	19	2	0
ZALDIAK	121	1	0
ERLEZAINZA	154	2	1



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

❖ HONDAKINAK IKERTZEKO PLAN NAZIONALA. (HIPN)

Animalia osasunean eta osasun publikoan eskumenak dituzten agintarien arteko baterako programa.

Helburua da bermatzea elikagai katerako diren abereetan debekatutako substantziarik, substantzia kutsatzailerik, antibiotikorik eta beste medikamentu batzuk ez egotea.

Arabako Abeltzaintza Zerbitzuak lagin hauek lortu ditu 2018ko ekitaldian abeltzaintza ustiategietan. Kasu guztietan, emaitzak araudiarekin bat etorri ziren. Programa hau establezimendu eta hiltegieetan hildako animaliengandik osasun publikoak hartutako laginei egindako analisiek osatzen dute.

IKERTUTAKO SUBSTANTZIA	LAGIN KOP.
ANABOLIZATZAILEAK	3
MIKROBIOEN AURKAKOAK	6
B-AGONISTAK	4
KLORANFENIKOLA	6
KORTIKOSTEROIDEAK	3
MIKOTOXINAK	3
ANTIHELMINTIKOAK	3
ORGANOKLORATUAK	1
HKEE	1
KOLORAGARRIAK	1



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

IKERTUTAKO ESPEZIEA	LAGIN KOP.
BEHIAK	18
ARDIAK	2
ARRAINAK	1
HEGAZTIAK	1
TXERRIAK	1

MATRIZEA	LAGIN KOP.
PENTSUA	5
URA	6
ESNEA	6
GERNUA	5
MUSKULUA	1

Osasun publikoak emaniko datuen arabera, laginak hartu dira hainbat hiltegi, biltegi eta arrautzak ontziratzeko lantegitan, debekatutako substantziarik, substantzia kutsatzailerik eta hondakinen gehienezko muga baimenduta daukaten substantziarik dagoen aztertzeke. Kasu guztietan, emaitzak araudiarekin bat etorri dira.

Memoria hau argitaratu arte lortutako emaitza guztiak bat etorri dira 1749/1998 Errege Dekretuak ezarritako hondakin araudiarekin. Foru dekretu horrek substantzia jakin batzuei eta substantzia horiek bizirik dauden animalian eta haien ekoizkinean uzten dituzten hondakinei aplikatu beharreko kontrol neurriak finkatzen ditu.



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

30

❖ GKEDAA (giza kontsumorako ez diren animalia azpiproduktuak) KONTROLATZEKO PROGRAMA

Programa horren xedea da abeltzaintza ustiategietan material horiek kentzen direla gainbegiratzea eta enpresak, bitarteko instalazioak eta azpiproduktu horiek garraiatzen dituzten ibilgailuak kontrolatzea.

2018an, honako kontrol jarduera hauek egin dira:

- Ibilgailuetan: 8
- Bitarteko instalazioetan: 4
- Gaitasun txikiko erraustegian: 1

Abeltzaintza ustiategiek sortutako animalia gorpuak GKEDAAtzat jotzen dira. Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuak Arabako abeltzaintza ustiategietan animalia gorpuak biltzeko zerbitzu bat dauka, **EURIA SL** enpresarekin sinatutako zerbitzuak emateko kontratu baten bidez.

Zerbitzu horrek Lurralde Historikoko errepideetan eta ibilgailuentzako beste bide batzuetan agertzen diren etxe abereen eta basa abereen gorpuak ere jasotzen ditu.

Jasotako abere hil gehienak **GARMESA** enpresak Bizkaiko Arteaga herrian daukan tarteko lantegira eraman ziren.

Bildutako gorpuen zati txiki bat bakarrik erabiltzen da baimendutako janlekuetan sarraskijaleak elikatzeko.

JANLEKUAK	KILOAK
MUSITU	32.410
VALDEREJO	2.510

Tratamendu instalazioan, guztira **915.817 kg** suntsitu dira, eta horretarako, **162.007.81€** erabili dira.

Gainera, 2018an, **170.982 €** esleitu zitzaizkion EURIArekin izenpetutako kontratuari, ustiategietako animalia hilak biltzeko.



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

Hona hemen 2018ko bilketa jardueraren laburpena, espezieka:

ESPEZIEA	ANIMALIA KOP.	PISUA
BEHIAK	3.097	563.695
TXERRIAK	2.055	54.243
ARDIAK	3.417	141.464
AHUNTZAK	321	14.515
ZALDIAK	222	54.475
OILOAK	21.129	24.817
UNTXIAK	4.944	4.949
AZERIAK	43	185
OREINAK	115	4.230
ORKATZAK	319	5.480
BASURDEAK	1.684	30.869
AMUARRAINAK	41	2.870
TXAKURRAK	27	428
KATUAK	17	28
BESTELAKOAK	179	13.569
GUZTIRA	37.610	915.817
ABISU KOP.		8.726



ABELTZAIN'TZA ZERBITZUA

❖ ESNE GORDINAREN KALITATEA KONTROLATZEKO PROGRAMA (Q LETRA).

Programa horren helburua da Arabako abeltzaintza ustategietan ekoiztako behi, ardi eta ahuntz esnearen kalitatea bermatzea.

Merkaturatzen den esneak kalitate parametro jakin batzuetako legeko zenbait eskakizun bete behar ditu:

- zelula somatikoek kopurua,
- germen kolonien kopurua,
- gehitutako urik ez egotea,
- antibiotiko hondakinik ez egotea,
- debekatutako substantziarik ez egotea.

2018ko ekitaldian honako kontrol jarduketak hauek egin dira:

ZELULA SOMATIKOEN KONTAKETA

	Behiak	Ardiak eta ahuntzak
BAT EZ ETORTZEAGATIK SORTUTAKO ALERTAK	0	-
MERKATURATZEKO MUGAK ERAGIN DITUZTEN ALERTEN ONDORIOZKO JARRAIPENAK	0	-

GERMEN KOLONIEN KONTAKETAK

	Behiak	Ardiak eta ahuntzak
BAT EZ ETORTZEAGATIK SORTUTAKO ALERTAK	0	0
MERKATURATZEKO MUGAK ERAGIN DITUZTEN ALERTEN ONDORIOZKO JARRAIPENAK	0	0



ABELTZAINZA ZERBITZUA

33

ANTIBIOTIKO HONDAKINAK

		Behiak	Ardiak eta ahuntzak
BAT EZ ETORTZEAGATIK SORTUTAKO ALERTAK		5	3
ALERTEN JARRAIPENAK	LAGIN OFIZIALA HARTUTA ETA KAUTELAZ GELDIARAZITA	0	0
	LAGIN OFIZIALIK HARTU GABE, AGIRI BIDEZKO JARRAIPENA (OPERADOREAK EGINDAKO AUTOKONTROLA)	0	0

EKOIZPENAREN HIGIENE ETA OSASUN BALDINTZAK

	Behiak	Ardiak eta ahuntzak
IKUSKAPENAK	1	0
LAGIN OFIZIALAK	1	0
BAT ETORRI EZ DIRENAK	0	0

Ez da zehapen espedienteak hasia edo Baldintzapekotasunari jakinarazpenak egitea eragin duen arau hausterik egon.



❖ ABELTZAIN'TZA ZERBITZUAREN BESTE JARDUERA BATZUK

- ⇒ Animaliak **EBko herrialdeetara bidaltzeko** osasun agiri batzuk igorri dira:
- ✓ Portugalera guztira 4.291 txerri eramateko 25 joan-etorri.
 - ✓ Frantziara guztira 11 behi eramateko 3 joan-etorri.
 - ✓ Frantzia eta Belgikara zaldiak eramateko 21 joan-etorri, azoka, lehiaketa edo xede propioetarako.
 - ✓ 17 txakur eramateko 3 joan-etorri gero adopzioan emateko. Haietatik 5 Alemaniara eraman dira.
 - ✓ 37.000 eper arrautza eramateko joan-etorri 1.
- ⇒ 2017ko ekainean, **desinfekzio arku** bat gaitu zen Aldundiaren Ibilgailu Zerbitzuan, Abeltzaintza Zerbitzuko bertako ibilgailuetarako eta ABEREkoetarako. Guztira, foru ibilgailuen 45 erabilera egin dira, eta ABEREK 259 erabilera egin ditu 2018an zehar.
- ⇒ **Hazitarako zaldiak erosteko laguntzen** programan aurkeztu diren 7 eskaeretatik 5 baietsi dira, guztira, 3.000 eurotan.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 13a

Abeltzaintza Zerbitzua